



PIU MARTÍNEZ LÓPEZ

**KLASIKOAK ETA ALBUMAREN
EGUNGO JOERAK: MEZU BERERAKO
LENGOIA EZBERDINAK**

**San Telmo Museoan,
urriaren 26an, 9:30-14:30**



“Klasikoak eta albumaren egungo joerak: mezu bererako lengoia ezberdinak” ikastaroa

Hamabost urte baino gehiago dira Galtzagorri elkarteak Haur eta Gazte Literaturako Irakurketa Mintegia martxan jarri zuenetik. Haren barruan, urtero, tailer, hitzaldi edo ikastaro bat eskaintzen die mintegiko parte-hartzaileei eta interesa duen beste edonori.

Aurtengo ikasturterako formazio saio berri bat antolatu dugu: “Klasikoak eta albumaren egungo joerak: mezu bererako lengoia ezberdinak”.

Albuma izango da prestakuntza saio honen ardatza. Saioan, gaur egun, HGLn klasikoak lantzeko moduak eta interesa sortzen duten gaiak ekartzeko erak behatu eta aztertuko ditugu. Arreta jarriko dugu albumean bat egiten duten lengoia ezberdinetan, hala nola ilustrazioa, argazkigintza, komikia, eta abar, eta gai horiei heltzeko modu anitzak arakatuko ditugu. Hurrei istorio zaharrak eta berriak kontatzeko forma eta formatu askotarikoetara eramango gaituen ibilbide bibliografiko bat egingo dugu.

Horretarako, Piu Martínez López irakurketa-bitartekaritzako eta albumaren dibulgazioko puntako aditua gonbidatu dugu. Euskarazko HGLan lan egiten duten profesionalen albumaren joera berriak zein diren ezagutaraztea izango du helburu eta literatura lantzen duten bitartekari zuzenduta egongo da: irakasleak, bibliotekariak, editoreak, kultur teknikariak, irakurketa proiektuetan parte hartzen duten begirale edo animatzaileak, literatura kritikariak...

LANDUKO DIREN GAIAK:

Hona saioan landuko ditugun gai zehatzak: lengoia berriekin kontatutako herri-ipuinak eta ahozko tradizioa; album dokumentalaren bitartez, fikziotik ez-fikziora doazen gai berriak; fotoalbum generoaren berpiztea; albumaren eta artista liburuaren arteko hesi mugakidea; euskarri berean gauzatzen diren generoen berrikuntza eta hibridazioa; eta, albumaren joerak eta etorkizuna.

METODOLOGIA:

Prestakuntza-saiorako hautatutako material bibliografikoen azalpen teorikoa eta, ondoren, miaketa egingo dugu bertatik bertara. Zati praktikoan, parte-hartzaileek, talde txikietan, arretaz begiratu eta aztertu ahal izango dituzte erakutsitako materialak. Ondoren, partekatu egingo dute ikusitakoa, beren arreta harrapatu duena eta egokitasuna ere bai. Azken batean, gerora liburutegietan, ikastetxeetan eta, oro har, bitartekaritzan zabal ditzaten da saioaren helburua, baita zabaltzeko erremintak izan ditzaten ere.

Hala, prestakuntzaren lehen zatia azalpenezkoa izango da, eta bigarrena praktikoa. Hautatutako tituluen erabilerari, sustapenari eta hedapenari buruzko proposamenak eta ikuspuntuak trukatzeko bultzatuko dugu, eta, gainera, bertaratutako artean 5 orduko saioan sor daitezkeen zalantza eta eskaerei erantzun diegu.

IRAKASLEA:

Piu Martínez López. Bibliotekonomia eta Dokumentazioko teknikari diplomaduna (Coruñako Unibertsitatea). Edizioko Masterra- IDEC- UPF, Pompeu Fabra Unibertsitatea (Bartzelona).

Irakurketa-bitartekaritzako eta album ilustratuaren dibulgazioko prestatzailea Kataluniako Liburuzain-Dokumentalisten Elkargo Ofizialean, Valentziako Erkidegoko Liburuzain eta Dokumentalisten Elkargo Ofizialean, Galiziako Eskola Liburutegien Aholkularitza, Escola d 'Escriptura de l' Ateneu Barcelonès eta beste kultura-erakunde batzuk. Kataluniako Liburuzain-Dokumentalisten Elkargo Ofizialak Bartzelonako Arte Garaikidearen Museoarekin (MACBA) eta Corraini Edizionirekin elkarlanean antolatutako Bruno Munari jardunaldien koordinazioaz arduratzen da eta bertan hizlari ere aritzen da.

Azken urteotan argialetxeen munduan aritu da batez ere, freelance editore eta scout editorial gisa. Bere edizio-proiektuen artean daude Joan Casaramonak ilustratutako Nicanor Parraren *Gato en el camino*; Clara-Iris Ramosek ilustratutako Rafael Barretten *Gallinas y otros cuentos*; José Antonio Emmanuelen *Anarquía explicada a los niños*; *Cartilla Escolar Antifascista*, M.I.P., 1937.

Sevillako Barrett argialetxearen haurrentzako bildumaren zuzendaria da. Premi Llibreter 2023 saria jaso zuen, Cruschiform & Gazhole-ren *Érase una forma* albumaren edizioarengatik.

NON: San Telmo Museoko ekitaldi aretoan: Zuloaga plaza, 1, 20003, Donostia.

NOIZ: Urriaren 26an, larunbata, 9:30etatik 14:30etara.

IZEN-EMATEA: [Izen-emate orria](#) beteta eta diru-sarrera egin izanaren ziurtagiria bidali behar da **urriaren 18a** baino lehen administrazioa@ibbygaltzagorri.eus helbidera.

Kontu korrante zenbakia: ES87 3035 0242 68 2420002471

Gehienez 50 ikaslek parte har dezakete. Onarpena izen-emate ordenaren arabera egingo da.

- Galtzagorriko mintegiko kideentzat doan.
- Galtzagorriko bazkideak: 35 euro.
- Ez-bazkideak: 50 euro.